



PORTUGALERA OINARRIZKO MAILA 1 ETA 2: HELBURUAK ETA EDUKIAK

OINARRIZKO MAILA

HELBURUAK

Zein dira Oinarrizko mailako 1. kurtsoko helburu orokorrak?

Oinarrizko Mailaren 1. ikasturtearen amaieran, honako gaitasun hauek izango dituzte ikasleek:

- Eguneroko gai edo gai pertsonalei buruz elkarrizketa laburrak (agurrak, aurkezpenak, esker onak, barkamenak), argibide eta oharpen errazak **ulertu**.
- Oinarrizko eginkizunetan esaten denaren funtsa **ulertu**: ikastaro batean izena eman, erosketak egin, hotel batean izena eman.
- Iragarki eta mezu laburretako funtsa **antzeman**.
- Ohar edo mezu pertsonal laburrak (SMS, posta elektronikoa, postalak) eta "salgai" iragarki publikoak **ulertu**.
- Ohikoa den hiztegi az idatzitako testu laburretan informazio orokorra eta aurreikus daitekeen informazio zehatza **ulertu** eta bereizi.
- Fitxak eta inprimakiak betetzeko oinarrizko argibideak **ulertu**.
- Toki publikoetan ohikoak diren argibide, informazio eta mezu laburrak **ulertu**: kaleetako, dendetako, jatetxeetako eta garraio bideetako kartelak eta afixak.
- Adeitasuneko ohiko formulak **erabili** (agurtu, agur esan, aurkeztu, eskerrak eman, barkamena eskatu, jendeari buruz galdetu).
- **Gauzak, mesedeak eta eguneroko kontuak eskatu eta eskaini**.
- Informazio pertsonala **eskatu eta eman** (nazionalitatea, bizilekua, jarduerak, interesak, familia, lagunak, eguraldia, etab.).
- Pertsona, leku, jarduera eta interesen aurkezpen eta **deskribapen errazak egin**.
- Egunerokoari lotutako jardueretan oso oinarrizkoak diren informazio, argibide eta mezuak **idatzi**: "etxe bila nabil".
- Gutun oso errazak **idatzi** (postalak) eredu batzuei jarraituz.
- Gai ezagunei buruzko testu laburrak **idatzi**, esaldi laburrak oinarrizko lokailuez elkartuz: "y, o, pero, porque".

Zein dira Oinarrizko mailako 2. kurtsoko helburu orokorrak?

Oinarrizko Mailaren 2. ikasturtearen amaieran, gaitasun hauek izango dituzte ikasleek:

- Eguneroko elkarrizketa errazetan esaten direnak **ulertu**, solaskideek laguntzen badiete.
- Elkarrizketen gaia **hauteman**.
- Banketxe, denda, geltoki eta bestelako ohiko egoeretan esaldi eta esapideak **ulertu**.
- Iragarki edo mezu publiko labur eta errazen esanahi orokorra **ulertu**, saltoki handietan, aireportuetan, eta bestelakoetan.
- Telebistako albisteen oinarrizko informazioa **ulertu**, irudiek ahozko informazioari laguntzen diotenean.
- Eguneroko ekintzekin zerikusia duten ohar eta mezu laburrak **ulertu** (SMS, posta elektronikoa, postalak).

- o **Gutun pertsonal labur eta errazak ulertu.**
- o Gai praktikoei buruzko gutun formal laburrak **ulertu** (hoteleko erreserba, atzerriko ikasturte bati buruzko informazioa).
- o Egunerokoan erabiltzen diren argibideak eta jarraibideak **ulertu** (errezetak, tresnen funtzionamendua, joko-arauak, kaleetako eta dendetako kartelak).
- o Eskuliburu ilustratuetan eta bestelako informazio-materialetan (menuak, zerrendak eta ordutegiak, kultur eta kirol jarduerak) informazioa **aurkitu eta ulertu**.
- o Egunkarietako testu labur eta errazetan informazio garrantzitsuena **identifikatu**.
- o Narrazio edo kontakizun laburrak **ulertu**.

- o Egunerokoarekin zerikusia duten jarduera eta egoerei loturiko informazio, argibide eta jarraibideen ohar edo mezu errazak **idatzi**.
- o Eskerrak emateko, barkamena eskatzeko edo nor bere buruari buruz edo inguruari buruz (familia, bizi-baldintzak, lana, lagunak, zaletasunak, etab.) hitz egiteko gutun pertsonal errazak **idaztea**.
- o Zerbitzuren bat edo informazioa eskatzeko gutun formal erraz eta laburrak **idatzi**.
- o Gertaerak esaldi laburrekin **deskribatu**, noiz eta non gertatu den azaltzeko (festak, istripuak, etab.).
- o Denborazko eta kausazko hitz eta egitura antolatzaile garrantzitsuenak erabiliz testuari **koherentzia eman**.

- o Egoera pertsonalak modu sinplean **deskribatu** (non bizi den, familia, prestakuntza, lana, zaletasunak).
- o Lehenaldiko jarduera eta esperientzia pertsonalak modu erraz eta egituratuan **deskribatu**.
- o Gizarte **harremanak egin** (agurtu, barkamena eskatu, gonbidapenak egin, etab.).
- o Eguneroko zeregin errazetan **ondo moldatu** (banketxean, bidaiagentzietan, dendetan eta abarren).
- o **Informazio zehatza eman eta jaso** (leku batera iristeko argibideak eman, etab.).
- o Egunerokoari loturiko informazio zehatza emateko, eskaintzak egiteko eta iradokizunak egiteko **elkarrizketetan parte hartu** (lanari buruz, aisialdiari buruz, etab.).
- o Eguneroko egoeretan **adostasuna lortu** (hitzordu pertsonalak eta formalagoak, medikuarenean, esaterako).

EDUKIAK

Helburu horiek lortzeko, hizkuntza-funtzio hauek ikasiko dituzte:

1. Informazio orokorra ematen eta eskatzen:

(urdina → Oinarrizkoa 1)

(berdea → Oinarrizkoa 2)

(beltza → Oinarrizkoa 1 eta 2)

- o Izenari, adinari, abizenei, egoera zibilari, naziotasunari, lanbideari, telefono zenbakari, helbideari, posta elektronikoa edo bestelakoei buruzko informazioa eman eta eskatu.
- o Pertsonen buruzko informazioa eskatu eta eman (lanbideak, familia, trebeziak, gustuak, zaletasunak), baita ordutegi, data, otordu, leku (eskola eta bizilekua), jaki, edari eta bestelakoei buruz ere.
- o Zerbait norena den galdetzen eta esan.
- o Pertsonak, aldarteak eta egoera fisikoak modu sinplean deskribatu.
- o Ohiko ekintzak edo egungoak aipatu.
- o Hizketan ari garen unean gertatzen diren ekintzei buruz hitz egin.
- o Pertsonak, objektuak (jantziak, altzariak, eraikinak eta eraikinetako bulegoak), egoerak eta ekintzak deskribatu.
- o Eguraldiari buruz hitz egin.
- o Gauzak lekuan mugatu eta kokatu (objektuak ikasgelan, etxean, hirian).
- o Zerbait edo norbait gertu edo urrun dagoen adierazi.
- o Lehenaldiko gertakari bat kontatzen eta hari buruz galdetu.
- o Esandakoa zuzendu, atzera egin, zalantza adierazi.
- o Azalpenetan gertaerak zenbatu.

- Oraina eta lehenaldia konparatu.
- Laburtu (pelikulak, liburuak...).
- Definitu.
- Gertaera baten berri ez duzula edo baduzula adierazi.
- Iragarpenak egin eta gauzen berri eman.
- Asmoei eta proiektuei buruz jardun.
- Proposamenak egin (asmoak eta agintzak).
- Pertsoneri, gauzei, gertakariei edo ekintzei buruzko hipotesiak azaldu.
- Denbora sekuentziak adierazi.
- Hitza eskatu eta eman, solaskidearen jarduna eten, hitz egiten utzi, etab.

2. Jarrerak eta iritziak azaltzen eta aztertzen:

- Gustuei buruz informazioa eman eta eskatu.
- Zerbaiten berri ez dugula edo badugula adierazi.
- Egoera fisikoari eta osasunari buruzko informazioa eman eta eskatu: hotza edo beroa, logura, gosea edo egarria, zaporea, ongizatea edo ezinegona.
- Barkamena eskatu eta barkatu.
- Zalantza adierazi.
- Interesa edo interesik eza erakutsi.
- Adostasuna edo ezadostasuna adierazi.
- Proposamen edo ideia baten alde edo kontra azaldu.
- Lehentasunak adierazi.
- Aukeraketak egin.
- Axolagabetasuna adierazi.
- Harridura adierazi.
- Pena adierazi.
- Nahien berri eman.
- Aldarteari eta egoera horien ondorioei buruzko informazioa eman eta eskatu: gogaitasuna, gogobetetasuna edo gogobetetasun eza, miresmena, interesa, estimua, poza, etab.

3. Konbentzitzen:

- Laguntza eskatu eta eskaini.
- Ikasgelako jarduerari buruzko aginduak eman.
- Zerbait egiteko baimena eskatu, eman edo ukatu.
- Laguntza eskaini eta eskatu, onartu eta ukatu.
- Zerbait egitera bultzatu.
- Argibideak eskatu eta eman (helbideak, lekuren batera iristeko).
- Parte hartzeko eskatu.
- Mezua errepikatzeke eskatu edo mantsoago hitz egiteko eskatu.
- Hitz edo esapideen esanahia edo itzulpena galdetu edo eman.
- Ulertu ez diren hitz edo izen bereziak letraka esateko eskatu.
- Ahotsari buruzko zehaztasunak eskatu: ozenago hitz egiteko, baxuago hitz egiteko, etab.
- Zerbait egiteko asmoari, nahiari edo erabakiari buruzko informazioa eskatu edo eman.
- Eginbeharra adierazin.
- Aholkuak eskatu eta eman.
- Laguntza eskatu.
- Debekuak adierazi.
- Jarduerak iradoki eta iradokizunei erantzun.
- Hitzorduak adosten, norbaitekin hitzordua egin.
- Aitzakiak eta desenkusak adierazi, onartu eta ukatu, arrazoiak eman.
- Oinarrizko telefono elkarrizketak (komunikazioa hasten, norbaiten galdea egiten, solaskideari itxaron dezan eskatu, entzun edo ulertu den adierazi, agurtu, etab.).
- Solaskideak hizketan jarrai dezan bultzatu.

4. Sozializatzen:

- Agurtu, agurrei erantzun eta adio egin.
- Bere burua aurkeztu, aurkezpenak egin eta aurkezpenei erantzun.
- Norbaiti buruzko informazioa eskatu eta eman.
- Eskerrak ematen eta eskerrak jasotzean erantzun.
- Zoriontzen eta zorionei erantzun.

- Norbaiten arreta erakarri.
- Ongietorria eman
- Oinarrizko mezu bat errepikatu.
- Ulertu dela edo komunikazioari eusten zaiola adierazi.
- Gonbidapenak onartu edo ukatu.
- Barkamena eskatu.
- Informazioa jaso edo kontakizunen bat entzundakoan interesa, harridura, poza, pena etab. adieraziz erantzun.
- Mezuak ulertu direla egiaztatu.

Nolako testuak irakurriko dituzte?

(1. eta 2. kurtsoetan berdin)

- Gutun pertsonalak.
- Gutun formalak.
- Aginduak eta argibideak: errezetak, gauzak erabiltzeko jarraibideak, tokiren bat aurkitzeko argibideak.
- Mezuak.
- Posta elektronikoa
- Curriculum vitaeak.
- Kartelak eta oharrak.
- Ordu-tegiak eta egutegiak.
- Informazio-afixak, araubideak.
- Menuak eta kartak.
- Planoak eta kale-izendegiak.
- Inprimakiak eta galdetegiak.
- Propaganda eta publizitate-liburuxkak.
- Aldizkari eta egunkarietako artikulua errazak.
- Komikiak, binetak.
- Horoskopoak.
- Gida turistikoak, bidaiak, aisialdia.
- Publizitate-idazkiak.
- Web orriak.
- Oraingo eta iraganeko gertakizunen kontakizun eta deskribapenak.
- Egokitutako eleberriak.

Nolako testuak entzungo dituzte?

(1. eta 2. kurtsoetan berdin)

- Lagun giroan, etxe-ekin, kideekin egindako elkarrizketak.
- Banketxeetan, dendetan, agentzietan eta antzerakoetan egindako elkarrizketak.
- Telefonozko elkarrizketak.
- Erantzungailu automatikoaren mezuak.
- Lan-elkarrizketak.
- Irrati eta telebistako informazioa.
- Iragarki publikoak eta publizitate-iragarkiak.
- Albiste laburrak.
- Eguraldi-iragarpenak.

Nolako testuak idatziko dituzte?

(1. eta 2. kurtsoetan berdin)

- Gutun pertsonalak.
- Gutun formalak.
- Mezuak.
- Posta elektronikoa
- Curriculum vitaeak.
- Kartelak eta oharrak.
- Informazio-afixak, araubideak.

- Inprimakiak eta galdetegiak.
- Oraingo eta iraganeko gertakizunen kontakizun eta deskribapenak.

Zer gai landuko dituzte?

(1. eta 2. kurtsoetan berdin)

- Nork bere burua identifikatu.
- Etxebizitza, etxea, hiria eta ingurua.
- Eguneroko bizimoduko jarduerak.
- Denbora libre eta aisialdia.
- Bidaiak.
- Giza eta gizarte-harremanak.
- Osasuna eta zainketa fisikoa.
- Heziketa.
- Erosketak eta merkataritza jarduerak.
- Elikadura.
- Ondasunak eta zerbitzuak.
- Hizkuntza eta komunikazioa.
- Klima, atmosferaren gorabeherak eta ingurumena.
- Zientzia eta teknologia.

Zer hiztegi ikasiko dute?

(urdina → Oinarrizkoa 1)

(berdea → Oinarrizkoa 2)

(beltza → Oinarrizkoa 1 eta 2)

Nork bere burua identifikatzeko:

- Pertsonen izaeraren, trebetasunen eta deskribapen fisikoaren inguruko oinarrizko hiztegia.
- Janzkeraren eta osagarrien inguruko hiztegia.

Etxebizitza, etxea eta ingurua:

- Etxebizitza: motak, kokapena, atalak eta banaketa.
- Altzairuak, gauzak eta tresneria.
- Hiria: kokapena, atalak, kaleak, eraikuntzak, berdeguneak eta monumentuak.
- Ikasi nahi den hizkuntza erabiltzen duten herrialdeko edo herrialdeetako lurralde antolaketa.

Eguneroko bizimoduko jarduerak.

- Denboraren zatiketaren inguruko hiztegia: urteak, hileak, asteak, egunak, egunaren eta orduaren zatiak.
- Etxeko, laneko edo ikasguneko zereginen inguruko oinarrizko hiztegia.

Denbora libre eta aisialdia:

- Jardueri buruzko oinarrizko hiztegia: kirolak, kultura-jarduerak...
- Aisialdirako lekuak: antzokia, museoa, hondartza...

Bidaiak:

- Turismoaren eta migrazioaren inguruko hiztegia.
- Garraiobideak.
- Bidaia motak: lana, atsegina, ikasketa.
- Herrialdeen izenak.

Giza eta gizarte-harremanak.

- Familia baten kideen inguruko hiztegia.
- Laguntasunaren, sentimenduen, maitasunaren inguruko hiztegia.
- Lan-munduaren inguruko hiztegia.

Osasuna eta zainketa fisikoa:

- o Gorputzeko atalak.
- o Sintomak eta gaixotasunak.
- o Osasun-alorraren inguruko hiztegia.

Heziketa:

- o Hezkuntzaren inguruko hiztegia: ikastetxeak, ikasgaiak, kalifikazioak, egiaztagirak...
- o Ikasgelako jardueren eta eskolarako materialaren inguruko hiztegia.

Erosketak eta merkataritza jarduerak:

- o Erabilera pribatuan ohikoenak diren gauzen izenak.
- o Establezimendu komertzialak.
- o Salneurria, txanponak, ordaintzeko erak...

Elikadura:

- o Elikagaiekin eta ontzi moten inguruko hiztegia.
- o Janariaren inguruko tresnen izenak.
- o Kopuruak, pisuak eta neurriak

Ondasunak eta zerbitzuak:

- o Zerbitzu pribatuak eta publikoa: banketxeak, posta...

Hizkuntza eta komunikazioa:

- o Hizkuntza baten ikaskuntzaren inguruko oinarritzko hiztegia.
- o Munduko hizkuntzak.
- o Komunikabideak: telebista, irratia...

Klima, eguraldia eta ingurumena.

- o Atmosferaren eta klimaren gorabeherak.
- o Elementu geografikoak.

Zientzia eta teknologia.

- o Telefonoari lotutako hiztegia.
- o Ordeganailuaren, Interneten eta beste komunikabide batzuen inguruko oinarritzko hiztegia.

Zer ikasiko dute portugalerak hitz egiten den herrien kulturari buruz?

Nork bere burua identifikatzeko:

- o Izen eta abizen ohikoenak.
- o Abizen kopurua eta ordena.
- o Agurtzeko eta adio esateko keinuak.

Etxebizitza, etxea eta ingurua:

- o Etxebizitza mota ohikoenak.
- o Oinarritzko ezaugarri geografikoak.

Eguneroko bizimoduko jarduerak.

- o Lan baldintzak eta lan bilaketa.
- o Puntueltasuna.
- o Gizarte ezaugarriak.

Denbora libre eta aisialdia:

- o Aisialdi eta denbora librean ohikoenak diren jarduerak.
- o Arte eta kultura alorreko erreferentziak.
- o Ospakizun eta jai esanguratsuenak.

Bidaia:

- o Kaleko ohiturak: gidatzeko arauak, etab.

- o Turismo-gune ezagunenak.

Giza eta gizarte-harremanak.

- o Familia bizimoduko ohitura eta usadioak.
- o Familiaren egitura.

Heziketa:

- o Hezkuntza-sistema

Erosketak eta merkataritza jarduerak:

- o Kontsumo-ohiturak

Elikadura:

- o Sukaldaritza eta jateko ohiturak.
- o Ospakizun zehatzetarako jaki tipikoak.

Ondasunak eta zerbitzuak:

- o Denden, banketxeen eta abarren ordutegiak.

Zientzia eta teknologia.

- o Informazio eta komunikazio teknologia berrien presentzia.

Zer egitura gramatikal ikasiko dituzte?

Fonologiako, ortografiako eta gramatikako gaitasunak komunikatu ahal izateko bitartekoak dira eta hizkuntza erabiliz barneratzen dira.

Testuak ulertu eta sortzeko –diskurtso-sekuentzia orori deitzen zaio testua, dela ahozkoa dela idatzizkoa- testuaren ezaugarriak aztertuko dira:

o Egokitzapena.

Komunikazio-asmoa.
Testuingurua eta egoera.
Hizkuntza-erregistroa eta maila.

o Testuaren koherentzia.

Edukiaren egituraketa.
Idea nagusiak eta bigarren mailakoak.
Hitzen hautaketa eta hizkuntzaren funtzioak.

o Testuaren kohesioa.

Elementu prosodikoak eta ortografikoak (intonazioa eta puntuazioa).
Errepikapen-baliabideak (izenordainak, substantiboen elipsia, sinonimia, esparru semantikoak...)

Diskurtsoaren markagailuak:

- Espaziozko markagailuak (kokapena)
- Denborazko markagailuak (elkarren segidako ekintzak adierazteko).
- Perpaus koordinatu eta menpekoen arteko testu-lokailu edo adierazgailuak.
- Esaldiak edo paragrafoak logikaz lotu eta erlazionatzeko testu-lokailu edo adierazgailuak.
- Ahozko diskurtsoari eusteko adierazgailuak.

Ikasi nahi den hizkuntzan komunikatzeko asmoz **gramatikako egitura** hauek erabiltzen ikasiko dute:

GRAMATIKA

Perpaua

- Perpaua bakuna
 - Perpaua motak, osagaiak eta horien kokapena.
 - Perpaua deklaratzaila: baiezkoa eta ezezkoa
 - Galderazko perpaua.
 - Perpaua deklaratzaila galdera-markekin.
 - O que é que.
 - Egiaztapenezko galderazkoak.
 - Harridura-perpaua: bokatioak, interjekzioak eta harridura-formulak.
 - Aginte-perpauak.
 - (Ukapena +) Aditza hasieran kokatuta.
 - Komuntadura-fenomenoak.
- Perpaua konposatua.
 - Harreman logikoen adierazpenak.
 - Juntagailua: e, nem.
 - Disjuntzioa: ou.
 - Aurkakotasuna: mas.
 - Alderaketa: tão/tanto como, menos (do) que, mais (do) que.
 - Kausa: porque.
 - Helburua: para.

Izenak eta adjektiboak

- Izena.
 - Motak: arruntak eta bereziak: zenbagarriak eta zenbatezinak.
 - Generoa.
 - Aurkakotasunarekin: arau orokorra eta beste kasu batzuk.
 - Aurkakotasunik gabe.
 - Numeroa: arau orokorra eta beste kasu batzuk.
- Adjektiboa.
 - Motak.
 - Generoa.
 - Aurkakotasunarekin: arau orokorra eta beste kasu batzuk.
 - Aurkakotasunik gabe.
 - Numeroa: arau orokorra eta beste kasu batzuk.
- Adjektiboen mailaketa.
 - Gradua: positiboa, konparaziokoa (nagusitasuna, berdintasuna eta gutxiagotasuna) eta superlatiboa (absolutua eta erlatiboa).

Determinatzaileak

- Artikuluak.
 - Zehaztuak eta zehaztugabeak.
 - Preposizioekin elkarketa.
- Erakusleak.
 - Aldagarriak eta aldaezinak.
 - Preposizioekin elkarketa.
 - Erakusleak eta aditzondoak (aqui, aí, ali).
- Edutezkoak.

- Edukitzailea batentzat eta batzuentzat.

- Zehaztugabeak.
 - Genero- eta numero-aurkakotasunarekin eta aurkakotasunik gabe.
- Zenbatzaileak.
 - Zenbakizkoak (kardinalak eta ordinalak).
- Harridurazkoak.
 - Genero eta numerozko aurkakotasunarekin eta aurkakotasunik gabe.
- Galderazkoak.
 - Genero eta numerozko aurkakotasunarekin eta aurkakotasunik gabe.
- Erlatiboak.
 - Genero eta numerozko aurkakotasunarekin eta aurkakotasunik gabe.

Izenordainak

- Pertsona-izenordainak.
 - Pertsonalak: tonikoak eta atonoak.
 - Trataerak.
 - Bihurkariak.
 - Preposizioekin elkarketa.
 - Izenordaina kokatzeko oinarrizko arauak.

Aditzak

- Denbora.
 - Orainaldiaren adierazpena: indikatiboko orainaldia. Aditz erregularrak eta aditz irregular eta bihurkari nagusiak.
 - Lehenaldiaren adierazpena: indikatiboko lehenaldi burutugabea eta burutugabe bakuna. Aditz erregularrak eta aditz irregular eta bihurkari nagusiak.
 - Etorkizunaren adierazpena: indikatiboko orainaldia; orainaldiko etorkizuna. Aditz erregularrak eta aditz irregular eta bihurkari nagusiak. *Ir* + infinitiboa: *haber-de* + infinitiboa.
- Aspektua.
 - Iraunkorra/ohikoa kontrastea: indikatibo burutugabea; *estar a* + infinitiboa / indikatiboko orainaldia.
 - Abiakaria/amaierazkoa kontrastea: *começar a* / lehenaldi burutu bakuna; *acabar de*; *vir de*.
- Modalitatea.
 - Faktueltasuna: indikatiboa.
 - Beharra: *precisar de* / *necessitar de* + infinitiboa.
 - Derrigorra: *ter de* / *que, dever* + infinitiboa.
 - Ahalmena: *poder* / *ser capaz de, saber* + infinitiboa.
 - Baimena: *poder* + infinitiboa.
 - Ahalmena: *poder, dever* + infinitiboa.
 - Probabilitatea: *dever* + infinitiboa.
 - Debekua: ezezko agintera, formala eta informala.
 - Asmoa, borondatea, nahia: *querer* / *ter que* / *pensar* + infinitiboa.

Adberbioak

- Klaseak: denbora, lekua, zenbatezko forma, baieztapena, ukapena, zalantza, bazterketa, barne hartzea, ordena eta galderazkoak.

- Gradua: positiboa, konparatiboa eta superlatiboa.

Preposizioak

- Preposizioak: bakunak; preposizioak + artikulua (crasis/contractos)
- Lokuzio preposizionalak.

FONOLOGIA ETA ORTOGRAFIA

- Soinuak eta fonema bokalikoak.
 - Bokal-sistema.
 - Ahozko bokalak: tonikoak / atonoak; irekiak / itxiak; diptongoak, triptongoak eta hiatoak.
 - Bokal sudurkariak: tonikoak / atonoak; diptongoak eta triptongoak.
- Kontsonanteen soinu eta fonemak.
- Prozesu fonologikoak.
 - Preposizioa + artikulua / erakuslea, forma laburbilduak.
 - Asimilazioa: gorketa/ahostuntzea, sudurkaritzea.
- Elementu bakartuen azentuak.
- Idazkera-sistema: alfabetoa.
- Fonemen eta soinuen irudikapen grafikoa.
 - Korrespondentziak.
 - Hizki bikunak : çç, ch, lh, nh, rr, ss.
- Karaktereen erabilera forma ezberdinetan.
 - Hizki larriak eta xeheak.
- Ortografia-zeinuak.
 - Azentua (zorrotza, kamutsa, zirkunflexua), tilet sudurkaria, ze hautsia, apostrofea, marratxoa...
- Puntuazioa.
- Lerro amaierako hitzen zatiketa.
- Egitura silabikoa.

OINARRIZKO MAILA - 2 (A2)

GRAMATIKA

Perpaua

- Perpaua bakuna
 - Perpaua motak, osagaiak eta horien kokapena.
 - Perpaua ezagutarazlea.
 - Galderazko perpaua.
 - Perpaua deklaratzaila galdera-markekin.
 - Harridura-perpaua: bokatiboak, interjekzioak eta harridura-formulak.
 - Aginte-perpauak.
 - (Ukapena +) Aditza hasieran kokatuta.
 - Komuntadura-fenomenoak.
- Perpaua konposatua.
 - Harreman logikoen adierazpenak.
 - Juntagailua.
 - Disjuntzioa: quer ... quer, nem ... nem, já já, seja seja.
 - Aurkakotasuna: porém, no entanto.
 - Kontzesioa: embora/ainda que/mesmo que + subjuntiboa.
 - Alderaketa: como, conforme, segundo.
 - Baldintza: se, caso + subjuntiboa; a não ser que + subjuntiboa.
 - Ondorioa: de sorte que, de forma que.
 - Kausala: por causa de.
 - Helburua: para + infinitiboa; para que + subjuntiboa.

Izenak eta adjektiboak

- Izena.
 - Motak: arruntak eta bereziak: zenbagarriak eta zenbatezinak.
 - Generoa: beste kasu batzuk.
 - Numeroa: beste kasu batzuk.
- Adjektiboa.
 - Generoa: beste kasu batzuk.
 - Numeroa: beste kasu batzuk.
 - Gradua: positiboa, konparaziokoa (nagusitasuna, berdintasuna eta gutxiagotasuna) eta superlatiboa (absolutua eta erlatiboa).

Determinatzaileak

- Artikuluak.
 - Zehaztua eta zehaztugabea eta preposizioekin elkarketa.
- Erakusleak.
 - Aldakorrak eta aldaezinak eta preposizioekin elkarketak: hurbiltasun eta urruntasun formak eta adberbio batzuekin duten korrelazioa.
- Edutezkoak.
 - Edutezkoaren beste balio batzuk.
- Zehaztugabeak.

- Beste zehaztugabe batzuk. Genero- eta numero-aurkakotasunarekin eta aurkakotasunik gabe.

- Zenbatzaileak.

- Beste zenbatzaile batzuk. Genero- eta numero-aurkakotasunarekin eta aurkakotasunik gabe.

- Harridurazkoak.

- Genero eta numerozko aurkakotasunarekin eta aurkakotasunik gabe.

- Galderazkoak.

- Genero eta numerozko aurkakotasunarekin eta aurkakotasunik gabe.

- Erlatiboak.

- Beste erlatibo batzuk. Genero- eta numero-aurkakotasunarekin eta aurkakotasunik gabe.

Izenordainak

- Pertsona-izenordainak.

- Tonikoak eta atonoak eta preposizioekin duten elkarketa.

- Beste trataera batzuk

- OZeko eta ZOko izenordainen kontrakzioak.

- Izenordain atonoen kokapena: proklisia, enklisia eta mesoklisia.

Aditzak

- Orainaldiaren adierazpena: indikatiboko eta subjuntiboko orainaldia. Aditz erregularrak, irregularrak eta bihurkariak.

- Lehenaldiaren adierazpena: indikatiboko lehenaldi burutugabe / burutu / pluskuanperfektu bakuna; indikatiboko lehenaldi burutu / pluskuanperfektu konposatua. Aditz erregularrak, irregularrak eta bihurkariak.

- Etorkizunaren adierazpena: indikatiboko orainaldia; orainaldiko etorkizuna. Aditz erregularrak, irregularrak eta bihurkariak.

- Infinitibo pertsonal bakuna.

- Modalitatea.

- Asmoa, borondatea, nahia: querer que + subjuntiboa.

- Boz aktiboa eta pasiboa.

- Partizipio erregularrak eta irregularrak.

- Partizipio bikoitza daukaten aditzak.

- Boz pasiboko agentea por / de preposizioekin.

- Se, partikula pasibatzailea.

Adberbioak

- Klaseak: denbora, lekua, zenbatezko modua, baieztapena, ukapena, zalantza, bazterketa, barne hartzea, ordena eta galderazkoak.

- Gradua: positiboa, konparatiboa eta superlatiboa.

- Adjektibozko lokuzioak.

Preposizioak

- Preposizioak: bakunak; preposizioak + artikulua (crasis/contractos)
- Lokuzio preposizionalak.

FONOLOGIA ETA ORTOGRAFIA

- Soinuak eta fonema bokalikoak.
 - Bokal-sistema.
 - Ahozko bokalak: tonikoak / atonoak; irekiak / itxiak; diptongoak, triptongoak eta hiatoak.
 - - Bokal sudurkariak: tonikoak / atonoak; diptongoak eta triptongoak.
- Kontsonanteen soinu eta fonemak.
 - Frikarien arteko ekitea: albokari-sabaikariak, sudurkari-sabaikariak eta dardarkari anizkoitzak.
- Prozesu fonologikoak.
 - Preposizioa + artikulua / erakuslea, forma laburbilduak.
 - Asimilazioa: gorketa/ahostuntzea, sudurkaritzea.
- Karaktereen erabilera forma ezberdinetan.
 - Hizki larriak eta xeheak.
- Ortografia-zeinuak.
 - Azentua (zorrotza, kamutsa, zirkunflexua), tilet sudurkaria, ze hautsia, apostrofea, marratxoa...
- Puntuazioa.
- Zatiketak.
 - Hitzak lerroaren amaieran.
 - Diptongoak, triptongoak eta hiatoak.
 - Silaba-egitura: CV/VC/CVC/MCV/CCV.

Nola ikasiko dute?

(1. eta 2. kurtsoetan berdín)

Ikastaro honen funtsa ikasleek hizkuntza era eraginkorrean erabiltzea da; ondorioz **ikasgelan eta autoikaskuntzan egingo diren ariketek komunikazio errealeko** egoerak izango dituzte oinarrian, hau da, **ulermen, sormen, elkarrekintza eta bitartekotza jarduerak**.

Ikasleek hizkuntza erabiltzeko gaitasuna gara dezan eta bere kabuz ere ikasi dezan, halakoak erabiltzen dira:

Ulermenerako estrategiak

- o Norberaren ezagutzetan eta bizipenetan oinarrituz hipotesiak eratu, formatua eta irudiak kontutan hartuz.
- o Soinuak ezagutu eta dagokien grafiarekin lotu (edo alderantziz).
- o Hitzunaren asmoa ulertzen laguntzeko ahozko hizkuntzaren ezaugarriak ezagutu (intonazioa, erritmoa, etenaldiak, ahotsaren modulazioa)
- o Ahozko hizkuntzan elementu paralinguistikoak nabarmendu eta ezagutu (keinuak, jarrerak...).
- o Hizkuntza bakoitzaren kultura-ohiturak eta edukiak nabarmendu eta ezagutu.
- o Hitz ezezagunen esanahia ulertu, horretarako oinarri bezala hartuz ikaslearen ezagutza, testuaren edo esaldiaren zentzu orokorra, egoera, testuingurua, beste hizkuntza batzuen ezagutza, hizkuntza edo gramatikako gakoak.

- o Ikasle bakoitzak bere estrategia erabili (hitz-gakoak azpimarratu edo idaztea, hitzen edo lokailuen zerrendak egitea ...).
- o Hitz ezezagunen esanahiaren inguruko hipotesiak egin ondoren hiztegia erabili.

Adierazpenerako estrategiak

- o Ereduetan oinarrituz, soinuak, intonazio-jarraibideak eta grafiak errepikatu.
- o Ikasitako hizkuntza-egiturak batuz, ahozko eta idatzizko testuak sortu.
- o Estrategia orekatzaileak erabili, hala nola parafraseatzea, norberaren hizkuntzako hitzak erabiltzea, zernahitarako elementuak, sinonimoak, etab.
- o Mintzakideek emaniko zeinuetan oinarrituz (hutsik gabeko errepikapena, keinuak...) arrakastaren eta hutsegiteen analisia eta auto-azterketa egitea, auto-zuzenketarako eta bere buruarenganako konfiantza indartzeko.

Elkarrekintzarako estrategiak

- o Ohi-ohikoak diren esamoldeak erabili (agurtzea, zorientzea, zortea opa izatea...) ahoz bai idatziz.
- o Inoren jarrerari erreparatu hobeto ulertu ahal izateko.
- o Estrategia orekatzaileak erabili komunikazioan isiluneak edo hutsegiteak saihesteko: laguntzeko, errepikatzeko edo argitzeko eskatzea, ahozko hizkuntzaz bestekoa erabiltzea, gaiz aldatzea, pentsatzeko denbora hartzeko esamoldeak erabiltzea...
- o Mezua ulertu dela baieztatu: mintzakideari zerbait zuzen dezan eskatu, edota balizko gaizki ulertzea argitu.

Auto-ikaskuntzarako estrategiak

- o Baliabide pertsonalak (testu-liburua, norberaren hiztegia, oharra, etab), ikastetxeakoak (liburutegia, baliabideen gela, etab.), edota bertatik kanpokoak (Internet) aurkitu eta eraginkortasunez erabili.
- o Hiztegia, gramatika, etab. ikasteko oinarritzko estrategiak identifikatu eta ikasitakoa bizkor eta sarritan erabili.
- o Ikasketa errazteko estrategiak erabili: orekatzaileak (parafraseatzea, mimikaz jokatzeta, etab.), afektiboak (hutsegitearen aurrean norbere buruarengan konfiantza izatea, zereginen bat egiteko arriskua hartzea), sozialak (kideekin lan egitea, jatorrizko hitzuneekin mintzatzea, etab.).
- o Ikasteko eta lanerako teknikak garatzeko estrategiak erabilia: buruz ikasteko (harreman mentalak edo mapa semantikoak sortzea...), kognitiboak (aztertzea, ondorioztatzea, arrazoitzea...), metakognitiboak (gauzei erreparatzea, ezagutza berriak zaharrekin lotzea...).
- o IKTen bidez komunikazio egoeratan esku hartu (telefono mugikorretako mezuak, txata, posta elektronikoak...).
- o Ohikoenak diren hutsegiteak hauteman, zergatia aztertu, eta ikasketa prozesuan ezinbesteko elementutzat onartu.
- o Hutsegitea ikasketa prozesuan ezinbesteko elementutzat onartu.

TREBETASUN BAKOITZA EBALUATZEKO IRIZPIDE ESPEZIFIKOAK**OINARRIZKO MAILA 1****IRAKURMENA**

Ikasle batek ikastaldi honen berariazko gaitasuna eskuratu duela joko da, ikasleak honako hau egin dezakeenean:

- Testu informatzaile labur eta errazen eta deskribapen errazen ideia orokorra ulertu, batik bat testua azaltzen laguntzen duten irudiak badituzte.
- Testu labur eta errazak ulertu, ezagunak diren hitzen eta oinarrizko esamoldeen laguntzaz, adibidez testuaren zatiak berrirakurrita.
- Idatzizko jarraibide labur eta errazak ulertu eta jarraitu, batik bat irudiak badituzte.
- Eguneroko bizimoduko egoerei buruzko testu batean dauden hitz eta esamolde errazak antzeman (adibidez, iragarki bat).
- Mezu labur eta errazak ulertu, adibidez postal bat edo posta elektronikoa bat.

ENTZUMENA

Ikasle batek ikastaldi honetako berariazko gaitasuna eskuratu duela joko da, ikasleak honako hau egin dezakeenean:

- Eguneroko premia errazei lotutako esamolde errazak ulertu, baldin eta astiro eta argi esaten badira, eta behin baino gehiagotan errepikatzen badira.
- Argi ahoskatutako eta astiro esandako diskurtso bat ulertu, esanahia aditzen lagunduko duten geldialdi luzeekin.
- Galdera eta argibideak ulertu eta jarraibide erraz eta laburrei jarraitu.
- Zenbakien, salneurrien eta orduen adierazpena ulertu.

IDAZMENA

Ikasle batek ikastaldi honetako berariazko gaitasuna eskuratu duela joko da, ikasleak honako hau egin dezakeenean:

- Esamolde eta esaldi isolatu errazak idatzi.
- Egunerokoari lotutako ohar laburrak idatzi.
- Postal edo posta elektronikoa labur eta erraza idatzi.
- Datu pertsonalekin inprimakia bete.
- Bere bizitokia deskribatu.

MINTZAMENA

Ikasle batek ikastaldi honetako berariazko gaitasuna eskuratu duela joko da, ikasleak honako hau egin dezakeenean:

- Bere burua aurkeztu eta pertsonari eta tokiei buruzko esaldi erraz eta isolatuak erabiliz mintzatu.
- Bere burua eta ingurune hurbila deskribatu: lanbidea, familia, bizilekua.
- Elkarrizketa errazetan parte hartu, baldin eta birformulazioak eta zuzenketak, eta errepikapenak astiroago egin ahal badira.
- Eguneroko gaiei buruz galdera errazak egin eta erantzun.

OINARRIZKO MAILA - 2

IRAKURMENA

Ikasle batek ikastaldi honetako berariazko gaitasuna eskuratu duela joko da, ikasleak honako hau egin dezakeenean:

- Testu labur eta errazak ulertu, tartean hitz arruntak daudela, ohiko erabilerako nazioarteko hitz batzuk barne.
- Egunerokoan erabiltzen diren tresnei buruzko jarraibideak dituzten testu labur eta errazak ulertu.
- Material bakunen bidez, hala nola eskutitzak, liburuxkak, menuak, zerrendak eta ordutegiak, informazio zehatza eskuratu.
- Gutun pertsonal erraz eta laburrak ulertu, eta baita beste gutun formal labur batzuk ere bai, hala nola eskaera baten edota diru-laguntza bat onartua izan den baieztapena.
- Egunkarietako testu labur eta errazetan informazio nabarmena hauteman, adibidez gertakizunak deskribatzen dituzten albisteen laburpenak.
- Toki publikoetan, esate baterako kale, tren geltoki, metro edo aireportuetan, egon ohi diren mezu eta oharrak ulertu.

ENTZUMENA

Ikasle batek ikastaldi honetako berariazko gaitasuna eskuratu duela joko da, ikasleak honako hau egin dezakeenean:

- Hizkera argi eta geldoa bada bere aurrean egindako elkarrizketa baten zentzu orokorra eta informazio zehatza ulertu, eta gai aldaketa bat identifikatu.
- Parte hartzen duen elkarrizketetan diskurtso bat ulertu, argia eta hizkuntza estandarrean bada, eta informazioa eskatu ahal badu.
- Eguneroko kudeaketa eta trukeei buruzko jarraibide errazak ulertu, hala nola leku batetik bestera oinez edo garraio publikoan joatea.
- Gertaerak, istripuak, eguraldien berriak, etab. direnean telebistako albistegien ideia nagusia ulertu eta identifikatzen jakin, azalpena laguntzeko irudiak daudenean.
- Mezu eta ohar argi eta errazen ideia nagusia antzeman eta ulertu.
- Eguneroko gaietara lotutako pasarte grabatuetan funtsezko informazioa ulertu, argi eta astiro hitz egiten bada.

IDAZMENA

Ikasle batek ikastaldi honetako berariazko gaitasuna eskuratu duela joko da, ikasleak honako hau egin ahal duenean:

- Gutun pertsonal errazak idatzi: bere buruaz hitz egin, inguruaz, eskertu edo barkamena eskatu.
- Gertaerak eta jarduerak labur eta bakun azaldu.
- Planak, asmoak azaldu eta lehentasunak adierazi.
- Zerbitzuren bat edo informazioa eskatzeko gutun formal erraz eta laburrak idatzi.

MINTZAMENA

Ikasle batek ikastaldi honetako berariazko gaitasuna eskuratu duela joko da, ikasleak honako hau egin ahal duenean:

- Historiak kontatu edo zerbait deskribatu elementuen zerrenda bakuna erabiliz.
- Aurretiaz prestatuturiko aurkezpen edo mezu laburra egin, gai ezagun bati buruz.
- Lehentasunak eta gogoak adierazi.
- Eguneroko truke eta gestioetan ondo konpondu.

- Elkarrizketa laburretan erraztasun dezenterekin parte hartu eta truke erraz eta ohikoetan ahalegin handirik gabe konpondu.

OINARRIZKO MAILA - 2

AZTERKETAREN DESKRIBAPENA, PUNTUAZIOA ETA ADMINISTRAZIOA

- Azterketaren gehienezko iraupena: 2 ordu. Irakurmen, ulermen eta idazmen probetarako ordu bete 45 minutu gordeko da eta saio bakar batean egingo dira. Ahozko probak 15 minutu iraungo du eta beste saio batean egingo da.
- Oinarrizko Mailako Ziurtagiria lortzeko ikasleak probetako bakoitza gainditu beharko du: irakurmena, entzumena, idazmena eta mintzamina. Ataletako batean lortutako emaitzak ez du balio izango beste ataletakoak konpentsatzeko.

PROBEN DESKRIBAPENA

IRAKURMENA

ATAZA KOPURUA	PUNTUAZIOA GUZTIRA	GUTXIENeko EMAITZA	IRAUPENA
3	20 puntu - % 25	12 puntu	40 minutu

HELBURUAK	Testu motak	Ataza motak
<ul style="list-style-type: none"> • Eguneroko gertaera bati lotutako informazioa identifikatu. • Testuaren ideia nagusiak ulertu. • Testua xeheki ulertu, adibidez gutun pertsonal bat. • Ezaguna den gai bati buruz eta erraz idatzita dagoen kontakizun laburra ulertu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Informazio-liburuxkak. • Jarraibide orriak. • Egunkari eta aldizkarietako interes orokorreko artikuluak. • Liburu eta filmen errezentsioa. • Publizitate iragarkiak. • Gutun pertsonal errazak. • Gutun formal edo komertzial errazak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Erantzuna: aukera ugariak. • Egia-gezurra. • Informazio-transferentzia. • Antolamendu jarduerak. • Erlazionatu. (goiburua eta testua...). • Hutsuneak bete. • Erantzun bakarreko galdera irekiak.

ENTZUMENA

ATAZA KOPURUA	PUNTUAZIOA GUZTIRA	GUTXIENeko EMAITZA	IRAUPENA
2 / 3	20 puntu - % 25	12 puntu	20 minutu

Helburua	Testu motak	Ataza motak
<ul style="list-style-type: none"> Bereizitasunez ulertu. Informazio nagusia ulertu. 	Grabaketak (audioa/bideoa): <ul style="list-style-type: none"> Aurrez aurreko elkarrizketa informalak. Banketxeetan, dendetan... egindako elkarrizketak. Iragarki publikoak eta publizitate-iragarkiak. Telefonoko mezuak. Albiste laburrak. Eguraldi-iragarpenak. 	<ul style="list-style-type: none"> Erantzuna: aukera ugariak. Egia-gezurra. Informazio-transferentzia. Lotu. Erantzun bakarreko galdera irekiak.

IDAZMENA

ATAZA KOPURUA	PUNTUAZIOA	GUTXIENeko EMAITZA	IRAUPENA
2	20 (5+15) puntu - % 25	12 puntu	45 minutu

Helburua	Testu motak	Ataza motak
<ul style="list-style-type: none"> Informazio zehatza eman, era labur eta errazean. 	<ul style="list-style-type: none"> Mezu elektronikoa. Postala. Oharra. 	<ul style="list-style-type: none"> Mezua, postala, oharra... idatzi. 40 hitz inguru
<ul style="list-style-type: none"> Informazioa, jarraibideak edo argibideak eman / eskerrak eman / barkamena eskatu / bere buruari buruz edo bere inguruari buruz idatzi / gertaera bat deskribatu / zerbitzu bat eskatu / informazioa eskatu... 	<ul style="list-style-type: none"> Eskutitz pertsonal laburra. Gutun formal erraza. Gertaera baten deskribapen laburra. 	<ul style="list-style-type: none"> Gutun bat, deskribapen bat edo historia bat idatzi, testu labur baten erantzun gisa edo jarraibideei segituz. 110 hitz)

MINTZAMENA

ATAZA KOPURUA	PUNTUAZIOA	GUTXIENEO EMAITZA	IRAUPENA
3	20 (4 +8+8) puntu - % 25	12 puntu	15 minutu

Helburua	Testu motak	Ataza motak
<ul style="list-style-type: none">Nork bere burua aurkeztu.	<ul style="list-style-type: none">Bakarrizketa.	<ul style="list-style-type: none">Bere burua aurkeztu, txartel bateko eta aztertzailaren galderei erantzunez.
<ul style="list-style-type: none">Eguneroko gai bati buruz labur mintzatu.	<ul style="list-style-type: none">Beste ikasle batekin/batzuekin elkarrizketa.	<ul style="list-style-type: none">Bizpahiru ikasleen inguruko elkarrekintza sortu, txartel batzuetan eskaini zaien jarraibideen arabera.
<ul style="list-style-type: none">Proposamenak egin akordioa bilatzen saiatuz.	<ul style="list-style-type: none">Beste ikasle batekin/batzuekin elkarrizketa.	<ul style="list-style-type: none">Bizpahiru ikasleren artean elkarrekintza sortu elkarri proposamenak egiteko eta akordioa lortzeko ahalegina egiteko, eman zaien informazioaren arabera: agenda pertsonala, kultura-agenda, mapa...

OINARRIZKO MAILA – 2ko EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

IDAZMENA

Irizpidea	Azalpena
Egokitzapena	Hau ebaluatzen da <ul style="list-style-type: none">• Ikasleak atazaren deskribapenean emaniko jarraibideak segitu dituen (eskutitza, kontakizuna).• Ikasleak eskatu zaion informazioa eman duen (oharra, posta elektronikoa).• testua ulergarria den.• formatua eskatu zaiona izan den (adibidez, gutun batean agurtzeko arauak erabili dituen).
Kohesioa eta zuzentasuna	Ulegarritasuna zuzentasunari lehenesten zaio. Baina ulergarritasunak honakoen eragina jasan ahal du: <ul style="list-style-type: none">• esaldien arteko kohesio eza.• hitz desegokiak erabiltzea.• hitzen ordenuan hutsak egitea.• hitzen flexioan hutsak egitea.• ortografia hutsak.

MINTZAMENA

Irizpidea	Azalpena
Egokitzapena	Hau ebaluatzen da <ul style="list-style-type: none">• ikasleak mintzakideari ulertzen dion.• egoki erantzuten duen.• ulertzeko moduan hitz egiten duen.• hiztegi egokia erabiltzen duen.
Zuzenketa	<ul style="list-style-type: none">• Kontutan hartzen da atzerriko azentua, etenaldiak eta zalantzak derrigorrez ematen direla hizkuntza baten oinarritzko ezagutzan.• Ulegarritasuna zuzentasunaren gainetik dago. Halere, ama-hizkuntzatik eratorritako hutsek, edo bestek, ulergarritasunari kalte egin diezaioke.

